

**ALEGIAKO
ZUHAITZ ETA
ZUHAIXKAK**



Xarmaren
fruitu
eta hostoak.

Aranzadi Natur-gida Txikiak, 4

Edukia: Aranzadi Zientzia Elkarte,
Botanika Saila: Yoana García Mendizabal
eta Mikel Etxeberria Okariz.

Ilustratzailea: Raúl Domínguez Pazo

Diseinua: didart

Inprimaketa: Michelena artes gráficas

ISSN 2386-5164

ISBN 978-84-17713-27-0

L.G. D 00481-2020



Alegiako
Udala



udalsarea 2030
udalerri jasangarrien euskal sarea
red vasca de municipios sostenibles



aranzadi
zientzia elkarte

AURKIBIDEA

Hitzaurrea	4
-------------------	----------

Sarrera	6
----------------	----------

Alegiako espezieen informazioa	9
---------------------------------------	----------

Alboa, <i>Platanus x hispanica</i>	10	Intsinis pinua, <i>Pinus radiata</i>	27
Astigarra, <i>Acer campestre</i>	11	Intsusa beltza,	
Astigar zorrotza, <i>Acer platanoides</i>	12	<i>Sambucus nigra</i> subsp. <i>nigra</i>	28
Astigar zuria, <i>Acer pseudoplatanus</i>	13	Iparraldeko elorri zuria,	
Douglas izeia, <i>Pseudotsuga menziesii</i>	14	<i>Crataegus monogyna</i>	29
Elorri beltza, <i>Prunus spinosa</i>	15	Lizarra,	
Erramua, ereinotza, <i>Laurus nobilis</i>	16	<i>Fraxinus excelsior</i> subsp. <i>excelsior</i>	30
Erratza, arkasatsa, <i>Ruscus aculeatus</i>	17	Ote zuria,	
Gaztainondoa, <i>Castanea sativa</i>	18	<i>Ulex europaeus</i> subsp. <i>europaeus</i>	31
Gereziondoa, <i>Prunus avium</i>	19	Pagoa, <i>Fagus sylvatica</i>	32
Gorostia, <i>Ilex aquifolium</i>	20	Sagarmina, <i>Malus sylvestris</i>	33
Hagina, <i>Taxus baccata</i>	21	Sahats iluna, <i>Salix atrocinerea</i>	34
Haltza, <i>Alnus glutinosa</i>	22	Sasiakazia, <i>Robinia pseudoacacia</i>	35
Haritz amerikarra, <i>Quercus rubra</i>	23	Txilar burusoila, <i>Erica vagans</i>	36
Haritz kanduduna, <i>Quercus robur</i>	24	Urki iletsua, <i>Betula pubescens</i>	37
Huntza, <i>Hedera helix</i>	25	Xarma, pago-lizarra, <i>Carpinus betulus</i>	38
Hurritza, <i>Corylus avellana</i>	26	Zume zuria, <i>Salix alba</i>	39

Languurreko atsedenekua	40
--------------------------------	-----------

HITZAURREA

Liburuxka honen egileen aldetik lerro hauek idazteko gonbitea jaso dudanean, poza bikoitza piztu zait. Alde batetik, ezin uka, egileak nirekin gogoratu izanak sorrarazi didana, eta bestetik nire herriaren ondare naturala hobeto ezagutzearen aldeko ahalegin polit honek sortarazitakoa.

Jakina, hitzaurreak (honako hau ez bezala) gaiaren inguruan adituak direnak edo egileen erreferentziazko pertsonak idazten dituzte. Ni ez naiz ez bata eta ez bestea. Eta horregatik nire pozaren bi alde horiek bat egiten dute, naturazale eta herritar sentimenduak uztartuta.

Alde guztietatik eraso eta bortizkeriak jasaten ari den Naturarentzat, bera hobeto ezagutzeko egiten diren ahalegin guztiak dira garrantzitsuak. Baina, horretaz gain, herri txiki honetako 30 zuhaitz eta zuhaixka espezie horien inguruan aritzea giltzarri bihurtu daiteke liburuxka honek irakurleen jakinmina pizten asmatzen badu. Eta hori lortuko duenik ez dut zalantzan jartzen. Jakinminetik jaiotzen da ezagutza, eta ezagutzatik jaio behar du kontserbatu nahiak. Liburuxka hau izan dadila beste askoren aurrekari, gure inguruan dugun altxorren ezagupenean aberastu gaitezen, ondorengoentzat kronika grafikoa utziz!

Jakinmina... Jakinmina beste begiratze modu baten eskutik dator. Egunean zehar hainbeste nekatzen ditugun begi horiek haur baten ezagutzeko pozez hornitu behar genituzke une oro, baina batez ere zementuaren koloreak berdeari bide uzten dion bakoitzean. Beste begirada bat estreinatu behar genuke hegazti baten, intsektu baten, hegaldiari erreparatzen diogun bakoitzean. Beste entzuteko modu bat ere bai igel baten, txori baten, kantua, txioa entzuterakoan.



Ez, ez da erraza, ez horixe! Baina, giltzarria eskuetan duzu! Zuhaitzek ez baitute ihes egiten. Gure begiraden zain geratzen dira, udazkenak biluzten eta udaberriak janzten dituen bitartean. Eta hori bai mesedegarri behatzen ikasi nahi eta behatuz gozatu nahi duenarentzat!

Esana dut Botanikaren inguruan ez dudala ezagupen askorik, landareen gainean ibiltzen direnei jarraitzen aritzen naizelako batik bat, baina jakin badakit landareak ez direla bizia garatzen den eszenatoki antzua. Landaredia Bizia bera da, oinarri eta teilatu, janari eta babesleku, hosto eta lore, egur eta zur.

Liburuxka lagun izan ezazu zure ibilaldi eta aisialdi unetan. Bila itzazu kanpoan honen barruan dituzun zuhaitz eta zuhaixka ederrok. Landare eta animaliak behatzea eta ezagutzea une bakoitza sakonago bizitzeko modu bat da. Eta entretenigarria ere bada!

Naturekin genituen ia lotura guztiak apurtu dituen gizarte honentzat, ezinbestekoa da oraindik mantentzen diren lokarri bakan horiek sendotzea, datozen belaunaldiak saiakera horretan jardun dezaten, gizakiok atzeraka emandako pausoak aurreraka eman ditzagun.



Bila itzazu kanpoan honen barruan dituzun zuhaitz eta zuhaixka ederrok. Landare eta animaliak behatzea eta ezagutzea une bakoitza sakonago bizitzeko modu bat da.

*Alegian, 2020ko apirilaren 29an
Iñaki Mezquita Aranburu*

SARRERA



ÁLEGIAKO UDALA

Alegia Gipuzkoako ekialdean dago, itsasoaren mailatik 94 metrora eta Oria eta Amezketara ibaiak ardatzen dute. Herriaren paisaia osatzen duten zelai, segabelardi eta frutarbolak daude, baita bertako basoak eta ekoizpenerako bideratutako landaketak ere.

Herriaren 7,8 km²ak Araxes, Aralar eta Hernioren erdian daude, eta denak ala denak dira biodibertsitate gordailu garrantzitsuak. Babes-eremu hauek ente isolatuak baino, elkarrekin lotutako sistemak dira, eta lotura horiek ezinbestekoak dira natura ondarea osasuntsu mantentzeko. Alegia, lotura-eremu horietako baten barnean kokatzen da: Araxes eta Aralar Hernio-Gazumerekin lotzen dituen igarobide ekologikoan hain zuzen ere. Lotura horrek bermatzen du Gipuzkoako babes-eremu hauen oraina eta etorkizuna.

Izan ere, animalia eta landareen migrazioa eta dispersioa errazten duten eremuak dira.

Igarobideak hain garrantzitsuak izanik, euren egoera ona mantentzea ezinbestekoa da, eta ingurua eta paisaia zainduko bada ezagutu egin behar da. Alegian badago zer ezagutu, besteak beste: larreak, basoak, putzuak, zuhaitz bereziak,... eta, beraz, badago zer zaindu ere.


Liburu honekin Alegiako zuhaitzak eta zuhaixkak ezagutarazi nahi dira, basoen oinarri direlako eta basoak baitira Gipuzkoan atzerakada handia pairatu duten paisaia-elementuetako bat. Orrialde hauetan EAEko altxor bat ezagutzeko aukera izango duzu, Alegiako erregina: xarma. Landare berezi bezain polita. Urrietan urriena dugu, izen xarmant eta hosto xarmangarriko zuhaitza; EAE osoan Alegian gotortu den espeziea. Ale gutxi izan arren, bertan dira tinko eta biziraupenerako borrokan ari dira. Ez da halako harribitxirik gordetzen dituen herri asko Gipuzkoan.

Beste espezie ugari ere ezagutuko dituzu, bertako haritz, lizar, astigarrak esaterako, baina baita antipodetatik ekarritako beste hainbat espezie ere, gurekin ditugunak denak. Batzuk ohikoak bezain ugariak, eta, beste batzuk, arraroak adina urriak.

Gida honekin, Alegian dauden zuhaitz eta zuhaixka espezieak ezagutzeko gai izango zara. Ea topatzen dituzun!

Orrialde hauetan EAEko altxor bat ezagutzeko aukera izango duzu, Alegiako erregina: xarma. Landare berezi bezain polita. Urrietan urriena dugu, izen xarmant eta hosto xarmangarriko zuhaitza





ALEGIAKO ESPEZIEEN INFORMAZIOA

Alboa

Platanus x hispanica



enborra

✿ Loraldia	Apirila-ekaina
↕ Tamaina	15-30 m
🌐 Jatorria	Exotikoa
🔍 Non topatu daiteke?	Lorategietan, landaketetan eta ibai zein bide ertzeetan landatua. Lur heze eta sakonetan bere kasa hazteko gai da.

Astigarra

Acer campestre



fruituak



loreak



✿	Loraldia	Apirila-maiatza
↕	Tamaina	8-20 m
🌍	Jatorria	Bertakoa
🔍	Non patatu daiteke?	Harizti eta haltzadietan.

Astigar zorrotza


Acer platanoides



✿ Loraldia	Otsaila-apirila
↕ Tamaina	20-30 m
🌐 Jatorria	Exotikoa
🔍 Non topatu daiteke?	Lorategietan. Lorategietatik kanpo bere kasa hazteko gai da haltzadi eta hariztietan.

Astigar zuria

Acer pseudoplatanus



✿ Loraldia	Maiatza-ekaina
↕ Tamaina	20-30 m
🌐 Jatorria	Bertakoa
🔍 Non topatu daiteke?	Harizti eta pagadietan eta, lorategietan.

Douglas izeia

Pseudotsuga menziesii




Ugal garaia	Apirila-maiatza
Tamaina	60 m-raino
Jatorria	Exotikoa
Non topatu daiteke?	Landaketetan.

Elorri beltza

Prunus spinosa



loreak



fruituak



Loraldia

Martxoa-apirila



Tamaina

1,5-4 m



Jatorria

Bertakoa



Non topatu daiteke?

Pagadi eta hariztien soiluneetan batez ere.

Erramua, ereinotza

Laurus nobilis



lore emea



lore arra



fruituak

 Loraldia	Otsaila-maiatza
 Tamaina	5-10 m
 Jatorria	Bertakoa
 Non topatu daiteke?	Harizti eta haltzadietan.

Erratza, arkasatsa

Ruscus aculeatus



✿	Loraldia	Urria-maiatza
↕	Tamaina	0,2-0,8 m
🌐	Jatorria	Bertakoa
🔍	Non topatu daiteke?	Hariztietan
🌿	Babes-maila EAEn	Interes berezikoa.

Gaztainondo

Castanea sativa



fruitua



hosto eta
fruituak



lore emea



lore arra



enbor zaharra



Loraldia

Maiatza-uztaila



Tamaina

15-30 m



Jatorria

Bertakoa



Non topatu daiteke?

Harizti eta pagadietan.

Gereziondoa

Prunus avium

fruitua



loreak

✿ Loraldia

Martxoa-maiatza

↕ Tamaina

10-20 m

🌐 Jatorria

Bertakoa

🔍 Non topatu daiteke?

Harizti eta pagadietan.

Gorostia

Ilex aquifolium

hosto eta
fruituak



lore emeak

lore arrak

✿	Loraldia	Apirila-ekaina
↑↓	Tamaina	2-15 m
🌐	Jatorria	Bertakoa
🔍	Non topatu daiteke?	Pagadi eta hariztietan.
🌿	Babes-maila EAEn	Interes berezikoa

Hagina

Taxus baccata



hosto eta
fruitua

enborra



lore emea




lore arrak

✿ Loraldia	Otsaila-apirila
↕ Tamaina	10-20 m
🌐 Jatorria	Bertakoa
🔍 Non topatu daiteke?	Pagadi eta hariztietan.
🌿 Babes-maila EAEn	Interes berezikoa

Haltza


Alnus glutinosa



✿	Loraldia	Otsaila-apirila
↕	Tamaina	10-25 m
🌐	Jatorria	Bertakoa
🔍	Non topatu daiteke?	Haltzadietan.

Haritz amerikarra

Quercus rubra



✿ Loraldia	Maiatza-ekaina
↕ Tamaina	20-40 m
🌐 Jatorria	Exotikoa
🔍 Non topatu daiteke?	Landaketetan. Landaketatik kanpo bere kasa hazteko gai da han-hemenka.


Haritz kanduduna

Quercus robur



lore arrak

lore emeak



✿ Loraldia	Apirila-maiatza
↕ Tamaina	15-40 m
🌐 Jatorria	Bertakoa
🔍 Non topatu daiteke?	Hariztietan.

Huntza

Hedera helix



🌸	Loraldia	Abuztua-urria
↕	Tamaina	15-10 m
🌐	Jatorria	Bertakoa
🔍	Non topatu daiteke?	Haltzadi, harizti eta pagadietan.

Hurritza

Corylus avellana




✿	Loraldia	Urtarrila-apirila
↕	Tamaina	2-5 m
🌐	Jatorria	Bertakoa
🔍	Non topatu daiteke?	Haltzadi, harizti eta pagadietan.


Intsinis pinua

Pinus radiata

hostoa



pinaburua



estrobilo
emeak



estrobilo
arrak



Ugal garaia

Otsaila-apirila



Tamaina

30 m



Jatorria

Exotikoa



Non topatu daiteke?

Landaketetan.

Intsusa beltza

Sambucus nigra subsp. *nigra*



enborra



fruituak

✿ Loraldia	Maiatza-uztaila
↕ Tamaina	2-10 m
🌍 Jatorria	Bertakoa
🔍 Non topatu daiteke?	Haltzadietan.

Iparraldeko elorri zuria

Crataegus monogyna



fruituak




loreak



 Loraldia	Apirila-ekaina
 Tamaina	3-8 m
 Jatorria	Bertakoa
 Non topatu daiteke?	Harizti eta pagadietan eta horien soiluneetan.

Lizarra

Fraxinus excelsior subsp. *excelsior*



loreak

✿	Loraldia	Martxo-maiatza
↕	Tamaina	10-40 m
🌐	Jatorria	Bertakoa
🔍	Non topatu daiteke?	Harizti eta haltzadietan.

Ote zuria

Ulex europaeus subsp. *europaeus*



 Loraldia	Abendua-maiatza
 Tamaina	0,6-2 m
 Jatorria	Bertakoa
 Non topatu daiteke?	Harizti eta pagadietako sastrakadietan.

Pagoa

Fagus sylvatica



fruitua




loxe emea

loxe arrak

✿ Loraldia	Apirila-maiatza
↕ Tamaina	20-40 m
🌐 Jatorria	Bertakoa
🔍 Non topatu daiteke?	Pagadietan.

Sagarmina

Malus sylvestris



 Loraldia	Apirila-maiatza
 Tamaina	2-10 m
 Jatorria	Bertakoa
 Non topatu daiteke?	Hariztietako soiluneetan batez ere.
 Babes-maila EAEn	Interes berezikoa Gipuzkoan

Sahats iluna

Salix atrocinerea

lore emeak



lore arrak



fruituak

 Lorealdia	Urtarrila-apirila
 Tamaina	2-10 m
 Jatorria	Bertakoa
 Non topatu daiteke?	Haltzadietan.

Sasiakazia

Robinia pseudoacacia



✿ Loraldia	Apirila-ekaina
↑↓ Tamaina	10-25 m
🌐 Jatorria	Exotikoa
🔍 Non topatu daiteke?	Landaketa, ezponda, haltzadi eta hariztietan. Espezie inbaditzailea da.

Txilar burusoila

Erica vagans

loreak



✿ Loraldia	Ekaina-iraila
↕ Tamaina	0,2-0,8 m
🌐 Jatorria	Bertakoa
🔍 Non topatu daiteke?	Harizti eta pagadietako sastrakadietan.

Urki iletsua

Betula pubescens



✿ Loraldia	Apirila-maiatza
↕ Tamaina	20 m-raino
🌐 Jatorria	Bertakoa
🔍 Non topatu daiteke?	Harizti eta pagadietan.

Xarma, pago-lizarra

Carpinus betulus



lore emeak

lore arrak

fruituak

✿	Loraldia	Apirila-maiatza
↕	Tamaina	10-25 m
🌐	Jatorria	Bertakoa
🔍	Non topatu daiteke?	Harizti eta lorategietan.
🌱	Babes-maila EAEn	Galtzeko arriskuan

Zume zuria

Salix alba



fruitua



✿ Loraldia	Otsaila-maiatza
↕ Tamaina	20 m-raino
🌐 Jatorria	Bertakoa
🔍 Non topatu daiteke?	Ur bazter eta lorategietan.





LANGAURREKO
ATSEDENLEKUA

LANGAURREKO ATSEDENLEKUA

Langaurreko atsedenekua Alegiako Aldaba Txiki mendian dago. Daturaz inguraturiko atsedeneku maitea da alegiarrentzat. Oinez, bizikletaz edo autoz iristeko hainbat bide daude eta bertatik, Aldaba Txiki mendia zeharkatzen duten zenbait ibilbide igarotzen dira, Intxur mendira doan bidea esaterako.

Bai Langaurren zein bere inguruetan Alegiako ondare natural garrantzitsua topatu daiteke, bertako baso naturalak zein odonatu eta anfibioen kontserbaziora bideratutako putzu bat. Horrez gain, atsedenekuan bertan, bertako zein kanpoko espezieak daude, horietako batzuk tamaina handikoak. Langaurren ikusi daitezkeen espezieetako batzuk dira gida honetan daudenak.

Jarraian, Langaurre eta bere ingurua zaindu eta hobetzeko jarraibideak azaltzen dira:



Errespetatu itxiturek babestutako lur-eremuak.



Elikagaiak prestatzeko sua egin daiteke horretarako ezarritako parrilak erabiltzen badira.



Ezin dira garbiketarako erabilitako gaiak (ura, xaboia, produktu kimikoak,...) isuri.



Zaindu bizidunak (lore, zuhaiz, intsektu, zizare,...). Bizidun bat kaltetzeak beste askori eragiten dio.



Ez bota zaborrik ingurura eta birziklatu hondakinak.



Etxeko animaliek lotuta ibili behar dute eta euren gorotzak jaso eta dagokien bilketa puntura eraman behar dira.



Motorrari eta motorrik gabeko ibilgailuekin saritzea debekatua dago.



Ez kanpatu.

Aranzadi Natur-gida Txikiak, 4



Alegiako
Udala



udalsarea 2030
udalerri jasangarrien euskal sarea
red vasca de municipios sostenibles



zientzia elkortea